# OHIKO UDAL OSOKO BILKURAREN AKTA

**Bilera-zenbakia:** 2018IPLE0005
**Eguna:** 2018-06-20
**Ordua:** 13:40 – 14:55
**Tokia:** Areto nagusia

## Bertaratuak

| | |
|---|---|
| - Zorione Etxezarraga Ortuondo | EAJ-PNV |
| - Juan Martin Arregui Sagües | EAJ-PNV |
| - Ramón Aranzasti Loyarte | EAJ-PNV |
| - Olaia Pastoriza Santos | EAJ-PNV |
| - Nerea Zusberro Alberro | EAJ-PNV |
| - Urkiri Salaberria Gracia | EAJ-PNV |
| - Andoni Gartzia Arruabarrena | EHbildu |
| - Ione Olatziregi Mendiorotz | EHbildu |
| - Ander Goicoechea Ocariz | EHbildu |
| - Ainara Vázquez Martinez | Ehbildu |
| - Mª Teresa Bernal Monroy | EHbildu |
| - Iker Goñi Salaberria | Ehbildu |
| - Mikel Durán Gonzalo | Euskadiko Sozialistak |

## Bertaratu ez direnak

## Idazkaria

- Kontxi Urdanpilleta Santamaría, ordezko udal idazkaria

## Aztergaiak

| EGUNEKO AZTERGAIAK | Zk | ORDEN DEL DIA |
|---|---|---|
| 2018ko maiatzaren 30eko akta onartzea. | 1. | Aprobación del acta de 30 de mayo de 2018. |
| Etxez etxeko laguntza zerbitzua arautzen duen udal araudiaren aldaketa: hasierako onarpena | 2. | Modificación del Reglamento municipal regulador del Servicio de Ayuda a domicilio: aprobación inicial. |
| Astigarragako Udalaren eta Euskal Herriko Unibertsitatearen (Arkitekturako goi eskola teknikoaren) arteko lankidetzarako hitzarmen- markoa | 3. | Convenio marco de colaboración entre el Ayuntamiento de Astigarraga y la Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Universitatea (escuela técnica superior de arquitectura |
| Santiagomendiko aterpearen eta natur eskolaren kudeaketa-kontratua luzatzea. | 4. | Prorroga del contrato de gestión del albergue y escuela medio ambiental de Santiagomendi. |

| | | |
|---|---|---|
| Alkatearen eskumenak udal osoko bilkurari eskuordetzeari buruzko 294/2017 Dekretuaren aldaketa. | 5. | Modificación del decreto 294/2017, de 13 de marzo, sobre la delegación de competencias de la alcaldesa en el pleno. |
| Kontratazio espedienteak irekitzeko akordioak | 6. | Acuerdos para la apertura de los expedientes de contratación. |
| Informazio, galdera eta eskariak. | 7. | Información, ruegos y preguntas. |

**Esan-eginak eta erabakiak:**

Bilerarekin hasi aurretik Andoni zinegotziak eskatu du gai-zerrendan sartzea bere taldeak eta Euskadiko Sozialistak haur eskolako jangelaren inguruan aurkeztu duten mozio bateratua.

Antes del inicio de la reunión, el concejal Andoni solicita que se incluya en el orden del día la moción conjunta presentada por su grupo y el grupo socialistas vascos sobre el comedor de la escuela infantil

Bozkatzera ekin zaio eta onartu egin da aldeko 7 botoekin (EHBildu taldeko kideak eta Euskadiko Sozialista taldearena) eta 6 abstentzioekin (PNV-EAJko kideena)

A continuación, se procede a su votación y la propuesta resulta aprobada con 7 votos a favor (miembros de EHBildu y miembro del grupo Socialistas Vascos) y 6 abstenciones (miembros de EAJ-PNV).

**1.- 2018ko maiatzaren 30eko akta onartzea.**

**1.- Aprobación del acta de 30 de mayo de 2018.**

Akta aho batez onartu da.

Se aprueba el acta por unanimidad.

**2.- Etxez etxeko laguntza zerbitzua arautzen duen udal araudiaren aldaketa: hasierako onarpena.**

**2.- Modificación del Reglamento municipal regulador del Servicio de Ayuda a domicilio: aprobación inicial.**

Gizarte Zerbitzuak, giza eskubideak eta enplegua batzordeko irizpena aurkeztu da, onartua izan dadin:

*Lehenengoa.- Etxez etxeko laguntza zerbitzua arautzen duen udal araudi berria hasierako izaeraz onartzea.*

*Bigarrena.- Toki Araubidearen oinarriak arautzen duen 7/1985 Legearen 49. artikuluak diona jarraikiz, espedientea 30 egunez jendaurrean jartzea.*

Jarraian **irizpena** bozkatzera ekin zaio, eta **aho batez onartu** da.

La alcaldesa presenta para su aprobación el siguiente dictamen de la comisión de Servicios Sociales, derechos humanos y empleo:

*Primero.- Aprobar inicialmente el nuevo Reglamento municipal regulador del Servicio de Ayuda de domicilio.*

*Segundo.- De acuerdo con lo dispuesto en el artículo 49 de la Ley 7/1985 de Bases de Régimen Local, sometero a información pública por el plazo de 30 días.*

A continuación se procede a votar el

**dictamen**, el cual **se aprueba por unanimidad**.

**3.- Astigarragako Udalaren eta Euskal Herriko Unibertsitatearen (Arkitekturako goi eskola teknikoaren) arteko lankidetzarako hitzarmen- markoa**

Alkateak hirigintza, Etxebizitza eta Ingurumeneko batzorde informatiboko irizpen hau aurkeztu du onartua izan dadin:

***Lehena***.- *"Convenio Marco de colaboración entre el excelentísimo Ayuntamiento de Astigarraga y la Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitatea (Escuela Técnica Superior de Arquitectura" izeneko hitzarmen markoa ONARTZEA, eranskin gisa atxikitzen dena.*

***Bigarrena***.- *Alkateari ahalmena ematea hitzarmen markoa sinatzeko, eta baita hori garatzeko beharrezkoak diren agiri guztiak sinatzeko ere.*

Alkateak azaldu du hitzarmena euskarara itzuli dela eta bidali ondoren ikusi dela hainbat esaldi gaizki itzuli direla, eta horiek eduki beharko luketen idazkera adierazi du.

Jarraian **irizpena** bozkatzera ekin zaio, eta **aho batez onartu** da.

**3.- Convenio marco de colaboración entre el Ayuntamiento de Astigarraga y la Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Universitatea (escuela técnica superior de arquitectura**

La Alcaldesa presenta, para su aprobación, el siguiente dictamen de la comisión Informativa de Urbanismo, vivienda y Medio ambiente:

***Primero***.- *Aprobar el convenio marco denominado "Convenio Marco de colaboración entre el excelentísimo Ayuntamiento de Astigarraga y la Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitatea (Escuela Técnica Superior de Arquitectura" que se adjunta c como anexo.*

***Segundo***.- *Autorizar a la alcaldesa a la firma del convenio marco y de cuantos documentos sean necesarios para desarrollar el mismo.*

La alcaldesa ha explicado que se ha traducido al euskara el convenio, y que después de enviarla se ha comprobado que algunas frases no están bien traducidas, señalando cual es la redacción correcta.

A continuación se procede a votar el **dictamen**, el cual **se aprueba por unanimidad**.

**4.- Santiagomendiko aterpearen eta natur eskolaren kudeaketa-kontratua luzatzea.**

Alkateak hirigintza, Etxebizitza eta Ingurumeneko batzorde informatiboko irizpen hau aurkeztu du onartua izan dadin:

*Santiagomendiko aterpearen kudeaketa eta Natur eskolaren kontratoa Sasoi-Sport enpresarekin urte betez luzatzea, 2019ko*

**4.- Prorroga del contrato de gestión del albergue y escuela medio ambiental de Santiagomendi.**

La Alcaldesa presenta, para su aprobación, el siguiente dictamen de la comisión Informativa de Urbanismo, vivienda y Medio ambiente:

*Prorrogar el contrato de la gestión del albergue de Santiagomendi y la Natur Eskola con Sasio-Sport por el plazo de un año, hasta el 31 de agosto de*

*abuztuaren 31 arte.*

*2019.*

Jarraian adierazi du esleipenaren azken urtea dela, eta bitartean aztertuko dela aurrerantzean zerbitzua nola eskaini.

A continuación señala que es el último año de contrato y que mientras tanto se va a analizar cómo dar en un futuro el servicio.

**Irizpena** bozkatzera ekin zaio, eta **aho batez onartu** da.

Se procede a votar el **dictamen**, el cual **se aprueba por unanimidad**.

**5.- Alkatearen eskumenak udal osoko bilkurari eskuordetzeari buruzko 294/2017 Dekretuaren aldaketa.**

**5.- Modificación del decreto 294/2017, de 13 de marzo, sobre la delegación de competencias de la alcaldesa en el pleno.**

**6.- Kontratazio espedienteak irekitzeko akordioak**

**6.- Acuerdos para la apertura de los expedientes de contratación.**

Bi gaiak erlazionatuta daudenez batera aztertu dira.

Al estar ambos temas relacionados, se han tratado de manera conjunta.

Alkateak azaldu du udal-idazkariaren proposamena izan dela, eta jarraian aurkeztu ditu, batetik berak osoko bilkuraren esku kontratazio arloan utzitako eskumenak aldatzen duen dekretua (alegia, 294/2017 Dekretuan utzitako eskumenak); eta bestetik, kontratazio espedienteak irekitzeko akordioen inguruan udal-idazkariaren proposamena:

La alcaldesa expone que se trata de una propuesta de la secretaria municipal, y a continuación presenta, por una parte, el decreto que modifica las competencias que ella delega en el pleno –es decir, las competencias delegadas en el Decreto 294/2017– y, por otra, la propuesta de la secretaria municipal sobre los acuerdos para la apertura de expedientes de contratación:

*Alkatearen eskumenak udal osoko bilkurari eskuordetzeari buruzko 294/2017 Dekretuaren aldaketa.*

*Kontratazio arloan alkateak udal osoko bilkurari eskuordetzen dizkion funtzio berria onartzea, hain zuzen:*

*Obra-kontratuak, obren kontzesio kontratuak, zerbitzuen kontzesio kontratuak, hornidura-, zerbitzu-kontratuak eta kontratu mistoak, baldin eta 300.000 eurotik gorakoa badira. Eta baita ere obra- eta hornidura-kontratu horien guztien kitapenaren onarpena.*

*Eskuordetza honetatik kanpo gelditzen da kontratu horien kontratu-espedienteak hastea, baita kontratu horien kontratu-aldaketen espedienteak hastea, izapidetzea eta onartzea ere.*

*Modificación del decreto 294/2017, de 13 de marzo, sobre la delegación de competencias de la alcaldesa en el pleno.*

*Aceptación de las nuevas delegaciones en materia de contración que la alcaldesa hace al pleno, consistentes en:*

*La contratacion respecto de los contratos de obra, de concesión de obras, de concesión de servicios, de suministro, de servicios y contrato mixto cuya cuantía supere los 300.000 euros. Así como la aprobación de la liquidación de los contratos de obras y suministros.*

*Se exceptúa de esta delegación la incoación del expediente de contratación; así como la incoación, tramitación y aprobación de los expedientes de modificación de esos contratos.*

*Kontratazio espedienteak irekitzeko akordioak*

*Atal bakarra.- Alkateari eskuordetzea Sektore Publikoko Kontratuen 9/2017 Legearen bigarren xedapen gehigarriaren arabera udal osoko eskumenekoak diren kontratazio-espedienteak irekitzeko akordioa hartzeko eskumena.*

Alkateak udal-idazkariari pasa dio hitza eta horrek azaldu du kontratu lege berria indarrean sartu denetik kontratazio espedienteak irekitzeko akordio bat hartu behar dela, eta hori hartzea kontratua esleitzeko organoari dagokiola. Baina, askotan organo eskuduna aurrez zehaztea zaila izan daitekeela, hori iraupenarekin eta zenbatekoarekin erlazionatuta dagoelako eta horiek aurrez finkatzea batzuetan zaila delako, izan ere, espedientearen lehen erabakia izanik, oraindik ez direlako kontratazioko datu guztiak aztertu.

Gaineratu du proposamenarekin udalaren funtzionamendua erraztuko dela, baina beraiek ez dutela aldea somatuko, orain arte bezala baldintza teknikoak eta administratiboak, eta kontratazio espedientea bera, organo eskudunak onartuko dituelako, hau da, kontratua esleituko duen organo bera; eta ebazpen guztien berri emango zaiela.

Jarraian bozkatzera ekin zaio, eta **aho batez onartu** dira, bai alkateak osoko bilkurari kontratazio arloan eskuordetutako funtzio berriak, bai osoko bilkurak –bere eskumeneko gaietan– alkatearen esku uztea espedientearen irekiera.

*Acuerdos para la apertura de los expedientes de contratación.*

***Apartado único.***- *Delegar a la alcaldesa la competencia para acordar la apertura de los expedientes de contratación que en virtud de la disposición adicional segunda de la Ley 9/2017 de Contratos del Sector Público, corresponden al pleno.*

La alcaldesa cede la palabra a la secretaria municipal, quien señala que desde la entrada en vigor de la nueva ley de contratos se debe adoptar un acuerdo para la apertura de expedientes, y que el mismo debe tomarlo al órgano de adjudicación del contrato. Pero ocurre que en muchas ocasiones resulta difícil determinar con antelación el órgano competente, porque eso es algo relacionado con la duración y el importe del contrato, y que fijar ambos parámetros con antelación a veces resulta complicado, ya que al tratarse del primer acuerdo del expediente aún no están analizados todos los datos referentes a la contratación.

Añade que con la propuesta se facilitará el funcionamiento del ayuntamiento, pero que no notarán mucha diferencia, porque, al igual que hasta ahora, las condiciones técnicas y administrativas y el propio expediente de contratación, serán aprobados por el órgano competente, y que se les notificarán todas las resoluciones.

Seguidamente se procede a la votación, y **se aprueban por unanimidad** tanto las nuevas funciones delegadas por la alcaldesa al pleno en el ámbito de la contratación como que el pleno delegue en la alcaldesa, en temas que son competencia del pleno, la apertura del expediente.

**7.- EHBildu eta Euskadiko Sozialisten mozio bateratua: eskolako jangelaren handipenaren inguruko**

**7.- Moción conjunta de EHBIldu y Socialistas Vascos: sobre la ampliación del comedor de la escuela.**

Alkateak hitza pasa dio Andoni zinegotziari eta horrek mozio hau aurkeztu du onartua izan dadin:

*Astigarragako Udal Osoko Bilkurak Astigarragako Udalari hurrengoa eskatzen dio.*

*Astigarragako Udal Osoko Bilkurak Astigarragako Herri Eskolako Gurasoei eta Zuzendaritzari aurkeztutako jangelaren handipen proposamena behin-betikoz bertan behera uztea eskatzen dio Astigarragako Udalari.*

*2017ko ekainaren 21en Udal Osoko Bilkurak aho batez hartu zuen erabakia oinarri hartuta, Astigarragako Udal Osoko Bilkurak gainean gutxienez solairu bat bermatuko duen jangelaren handipena aurreikusiko duen proiektua 2018an idaztea eskatzen dio Astigarragako Udalari.*

*Astigarragako Udal Osoko Bilkurak 2019ko udan, gutxienez, jangelaren handipena egitea eskatzen dio Astigarragako Udalari.*

*Astigarragako Udal Osoko Bilkurak erabaki hau Astigarragako Herri Eskolako Zuzendaritzari eta Guraso Elkarteari, Udaleko Hezkuntza, Obrak eta Zerbitzuak eta Hirigintza sailei eta Gipuzkoako Hezkuntza Ordezkaritzari jakinaraztea eskatzen dio Astigarragako Udalari.*

Jarraian adierazi du gaia bi batzordeetan aztertu den arren, oposizioari ez zaiola proiektua erakutsi eta ikastolak proiektuaren kontra idatzia aurkeztu duela. Eta gaineratu du mozio aurkeztu izanaren arrazoia izan dela Jon zinegotziak obra eta zerbitzuetako azken batzordean adierazi izana oposizioa eta ikastola kontra egon arren, aurrera jarraituko zutela, udal osoko bilkurak ez bazuen kontrakoa esaten.

Azaldu du egoera honetara ez zela iritsi behar, ikastolaren beharrak hasieratik ezagutzen zirelako, eta azken urtean gaiaren inguruan aurkeztutako idatziak eta hartutako konpromisoak zerrendatu ditu (2017ko ekaineko osoko bilkurak onartutako mozioa, 2018ko otsailean zuzendaritzak eta organo gorenak aurrekontuei aurkeztutako

La alcaldesa le cede la palabra al concejal Andoni y éste presenta la siguiente moción para que sea aprobada:

*El Pleno Municipal de Astigarraga solicita lo siguiente al ayuntamiento de la localidad:*

*El Pleno Municipal de Astigarraga solicita al ayuntamiento de la localidad que descarte definitivamente la propuesta de ampliación del comedor presentada a las madres y padres y a la directiva del Colegio Público de Astigarraga.*

*Conforme al acuerdo adoptado de manera unánime por el Pleno Municipal de 21 de junio de 2017, el Pleno Municipal solicita al Ayuntamiento de Astigarraga la redacción de un proyecto en 2018 que prevé la ampliación del comedor, de manera que garantice la construcción sobre el mismo de al menos una planta.*

*El Pleno Municipal de Astigarraga solicita al ayuntamiento de la localidad que en el verano de 2019 lleve a cabo, al menos, la ampliación del comedor.*

*El Pleno Municipal de Astigarraga solicita al ayuntamiento de la localidad que notifique este acuerdo a la directiva del Colegio Público de Astigarraga y la Asociación de Madres y Padres, a los Departamentos de Educación, Obras y Servicios, y Urbanismo del ayuntamiento, y a la Delegación de Educación de Gipuzkoa.*

A continuación señala que, aunque el tema ha sido tratado en dos comisiones, no se enseñado el proyecto a la oposición y que la ikastola ha presentado escrito contra el mismo. Y añade que el motivo para presentar la moción ha sido la afirmación por parte del concejal Jon en la última comisión de obras y servicios que, aunque la oposición y la ikastola estuvieran en contra, iban a continuar adelante, a menos que el pleno señalase lo contrario.

Expone que no había que haber llegado a esta situación, puesto que ya se conocían las necesidades de la ikastola desde el principio, y ha relacionado los escritos presentados en torno al tema durante los últimos años y los compromisos adquiridos (moción aprobada

alegazioak, gobernu taldeak otsailaren 28an hartutako konpromisoa, ekainean aurkeztutako idatziak eta egindako batzordeak).

Alkateak hartu du hitza eta azaldu du 2017ko mozioa sartu aurretik bere taldeak urrats desberdinak eman zituela. Ikastolako zuzendariarekin hitz egin zutela ikastolak zuen leku arazoaren inguruan, eta delegaritzan bilera egin zutela, baina horrek epe baterako arazoa zela argudiatu zuela. Dena den, ikastolaren handipena bideratu nahi zutenez, aurreko legealdian ikastolako handipenaren proiektua idatzi zuten arkitektoekin harremanetan jarri zirela, horiek aztertzeko zein zen handipen egokiena, asmoa zelako delegaritzari proiektu zehatza erakustea.

Azaldu du mozioa urrats horiek egiten ziren bitartean aurkeztu zela, eta ez dutela beste legealdietan egin ez dena egin. Baina harritzen diena dela ikastolak hezkuntzara egoeraren berri ez eman izana.

Jarraian bozkatzeari ekin zaio, baina PNV-EAJko kideek – alkatea izan ezik – pleno aretoa utzi dute, beraz, AJA/ROF legearen 100. artikuluari jarraikiz abstenitutzat hartzen zaie. Beraz, mozio onartu egin da, aldeko 7 botoekin (EHBildu eta Euskadiko Sozialistak) eta 6 abstentzioekin (PNV-EAJ).

Bozketa bukatu ondoren, PNV-EAJko zinegotziek berriro ere gelara sartu dira.

Andoni zinegotziak hitza hartu du eta adierazi du udalari ez dagokiola aztertzea ikastolako zuzendaritzaren jarrera. Gaineratu du ikastolak jangelaren arazoaren berri udalari eman ziola 2017ko martxoaren 28an, eta mozioa maiatzean aurkeztu zela, eta onartu aurretik ebatzi arren arkitektoei azterketa-lana eskatzea, hori mozioa aurkeztu ondoren egin zela.

Zinegotziarentzako harrigarria da hezkuntzak adieraztea egoeraren berri ez dutela, 2017ko mozioa bidali zitzaienean, gainera adierazi du

por el pleno de junio de 2017, alegaciones presentadas en febrero de 2018 por la dirección y el órgano superior, compromisos adquiridos por el equipo municipal el 28 de febrero, escritos presentados en junio y comisiones llevadas a cabo).

Toma la palabra la alcaldesa y expone que antes de presentar la moción de 2017 su grupo dio diversos pasos. Hablaron con la dirección de la ikastola sobre los problemas de espacio que tenía el centro y celebraron una reunión en delegación, pero se argumentó que se trataba de un problema limitado a un periodo de tiempo. Con todo, dado que querían encauzar el tema de la ampliación de la ikastola, se pusieron en contacto con el arquitecto que redactó el proyecto de su ampliación en la anterior legislatura para analizar cuál era la ampliación más adecuada, puesto que se quería mostrar un proyecto concreto en delegación.

Expone que esa moción se presentó mientras se daban esos pasos, y que no han hecho nada que no se haya hecho en anteriores legislaturas. Pero que lo que le extraña es que la ikastola no haya dado cuenta de la situación a Educación.

Seguidamente, se procede a la votación, pero todos los miembros de EAJ-PNV, a excepción de la alcaldesa, abandonan el pleno, por lo que, en virtud de lo dispuesto en el artículo 100 de la ley ROF, se considera que se abstienen. En consecuencia, se aprueba la moción, con 7 votos a favor (EHBildu y Socialistas Vascos) y 6 abstenciones (EAJ-PNV).

Finalizada la votación, el grupo de concejales de EAJ-PNV vuelve a entrar en la sala.

Toma la palabra el concejal Andoni e indica que al ayuntamiento no le corresponde analizar la actitud de la directiva de la ikastola. Añade que la ikastola dio cuenta del problema del comedor al ayuntamiento el 28 de marzo de 2017 y que la moción se presentó en

udal gobernu taldeak beraiekin harreman ona baldin badu zergatik ez dion egoeraren berri eman, aurreko legealdian beraiek egiten zuten moduan, orduan alkatetzak berbidaltzen baitzituen udalean aurkezten ziren idatzi guztiak.

Alkateak erantzun dio jangelaren leku arazoaren berri ez zela 2017ko martxoan eduki, are gehiago EHBilduren eskutik jakin zutela. Adierazpen horrek bi kideen arteko eztabaida sortu du, baita ere ikastolak delegaritzarekin legealdi honetan ustezko jarrera aldaketa.

Ainara zinegotziak iniziatiba eza leporatu die gobernu taldeko kideei, eta Iker zinegotziak, berriz, eskaerei erantzuna ez ematea. Horrek beste eztabaida bat sortu du, hain zuzen, talde bakoitzak beren legealdietan hezkuntza arloan egin dutenaren ingurukoa. Alkatearen hitzetan aurreko legealdian lehentasuna eman zioten atez ate sistema jartzeari eta azken une arte ez zitzaion eutsi ikastolako handipenari, eta bere taldeak, berriz, hezkuntzako lan-ildoa jarraitzen dago. Urkiri zinegotziarentzat, berriz, ikastolaren gaiarekin ez da aurreikuspen ona egin, uneoro handipen beharra dagoelako. Andoni zinegotziarentzat, aldiz, ikastola beti handitu behar izatea hirigintzako plangintzaren ondorioa da, eta legealdi hau izan da ikastolaren handipena egingo ez den bakarra, jarraian beren legealdiko lorpenak zerrendatu ditu.

mayo, y que aunque el estudio realizado por los arquitectos se solicitó antes de que se aprobara, eso se llevó a cabo una vez presentada ya la moción.
Para el concejal resulta sorprendente que Educación manifieste que no está al corriente de la situación, cuando se les envió la moción de 2017, y además señala que si el equipo de gobierno municipal mantiene una buena relación con ellos, por qué no se le ha dado cuenta de la situación, tal y como hicieron ellos mismos en la anterior legislatura, dado que la alcaldía reenviaba todos los escritos que se presentaban en el ayuntamiento.

La alcaldesa le responde que no se tuvo constancia de los problemas de espacio del comedor en marzo de 2017, y que más aún, lo supieron de la mano de EHBildu. Esa afirmación ha generado un debate entre ambos miembros de la corporación, al igual que el presunto cambio de actitud de la ikastola con delegación durante esta legislatura.

La concejala Ainara les reprocha falta de iniciativa a las personas integrantes del equipo de gobierno, y el concejal Iker, por su parte, que no hayan respondido a las solicitudes. Eso ha generado otro debate, en torno a lo que cada grupo hace durante sus legislaturas en el ámbito educativo. En palabras de la alcaldesa, en la legislatura anterior se dio prioridad a la instalación del sistema puerta a puerta y hasta el último año no se abordó la ampliación de la ikastola, y su grupo, en cambio, sigue la línea de trabajo marcada por Educación. Para la concejala Urkiri, por su parte, no se hecho una buena previsión con el tema de la ikastola, porque hay que hacer una ampliación a cada momento. Para el concejal Andoni, en cambio, el hecho de tener que estar haciendo siempre ampliaciones es consecuencia del plan general, y esta legislatura será la única en la que no se va a realizar una ampliación, pasando a continuación a hacer una relación de los logros obtenidos durante el mandato de su grupo.

## 8.- Informazio, galdera eta eskariak.

### a.- Errefuxiatuak

Mikel zinegotziak adierazi du “Aquarius”eko 20 errefuxiatu iritsi direla gipuzkoara eta hainbat udalek laguntza eskaini dutela, eta Udalak azpiegiturak eskaini dituen galdetu du.

Alkateak erantzun dio gaia aztertzeke dutela.

### b.- Haur eskola

Mikel zinegotziak adierazi du haur eskolako gurasoekin bilera eduki duela, eta horiek azaldu diotela kezkatuta daudela gobernu taldeak zerbitzua bi eraikinetan jartzea duten asmoarekin. Galdetu du ideia berarekin jarraitzen duten, ez zaiolako egokia iruditzen Astigarraga bezalako herri batean zerbitzu bat bi lokal desberdinetan eskaintzea.

Alkateak adierazi dio lokalen lagapenen inguruan hitz egin zela, aztertu zela haur eskola txikiagoa egiteaz eta behar izanez gero oraingo lokala zerbitzu berdinera eskaintzeaz; baina ez dela ezer erabaki, eztabaidatu egin zela.

Andoni zinegotziak adierazi du gobernu taldea izan dela guraso elkarteari esan dioena Mikel zinegotziak komentatutakoa.

Alkateak erantzun dio guraso elkartearekin ez direla elkartu, eta Urkiri zinegotziak, berriz, bigarren lokalarena aukera bakarrik dela, eta hori leku arazoa baldin badago.

Ainara zinegotziak galdetu du lokal berrian zenbat unitate egongo diren, baita haur eskola bi lokaletan banatuko den ere.

Alkateak erantzun dio 3 hilabete behar direla gaia behar bezala argitzeko, bigarren lokala ez dela epe ertainean beharko, eta beraiek esan dutena izan dela epe luzean leku arazoa

## 8.- Información, ruegos y preguntas.

### a.- Refugiados

El concejal Mikel señala que han llegado 20 refugiados del “Aquarius” a Gipuzkoa, y que diversos ayuntamientos han ofrecido ayuda, para preguntar a continuación si el ayuntamiento de la localidad ha ofrecido sus infraestructuras.

La alcaldesa le contesta que el tema está pendiente de estudio.

### b.- Escuela infantil

El concejal Mikel señala que ha celebrado una reunión con las madres y padres de la escuela infantil, y que le han expuesto que están preocupados con el propósito del equipo de gobierno de implantar el servicio en los dos edificios. Pregunta si persisten con la misma idea, ya que no les parece correcto que en una localidad como Astigarraga un mismo servicio se oferte en dos locales diferentes.

La alcaldesa le indica que se habló en torno a la cesión de los locales, que se estudió la posibilidad de hacer más pequeño el local de la escuela infantil y ofrecer, en caso de ser necesario, el actual local para el mismo servicio, pero que no se ha acordado nada el respecto, que simplemente se debatió.

El concejal Andoni señala que ha sido el equipo de gobierno el que ha manifestado a la asociación de madres y padres lo anteriormente comentado por el concejal Mikel.

La alcaldesa le responde que no se han reunido con la asociación de madres y padres, y la concejala Urkiri por su parte, que lo del segundo local es solamente una posibilidad, y eso siempre y cuando haya problemas de espacio.

La concejala Ainara pregunta cuántas unidades habrá en el nuevo local, así como si

egonez gero, egungo lokala erabiliko dela zerbitzua hobetzeko. Dena den, gaia erabakitzeke dagoela, eta hezkuntza batzordera eramango dela.

Urkiri zinegotziak, berriz, adierazi du datuak aldakorrak direla, eta oposizioari aurpegiratu dio gelak egitea bakarrik pentsatzea, kontuan hartu gabe gero hezkuntzak horietarako hezitzaileak bidaliko dituen edo ez. Eta adierazi du ez dela ahaztu behar herri eskola dela.

Mikel zinegotziak adierazi du onartu berri dagoen akta jasota dagoela egungo haru eskolaren lokala zerbitzuari atxikituta geldituko dela. Gainera, eskatu du gurasoekin hitz egitea eta gaia argitzea, gurasoek pentsatzen dutelako bi haur eskola egongo direla.

la escuela infantil se va a dividir en dos locales.

La alcaldesa le responde que se precisan 3 meses para aclarar debidamente el tema, que a medio plazo no se va precisar de segundo local y que lo que ellos han manifestado es que de haber problemas de espacio a largo plazo, se utilizará el local actual para mejorar el servicio. Con todo, el asunto está por decidir, y se trasladará a la comisión de educación.

La concejala Urkiri, por su parte, señala que los datos son variables, y reprocha a la oposición que sólo piensa en construir aulas, sin tener en cuenta si Educación enviará o no educadoras y educadores para esas aulas. Y manifiesta que no se puede olvidar que se trata de una escuela pública.

El concejal Mikel señala que en el acta recién aprobada se recoge que el local de la actual escuela infantil quedará adscrito al servicio. Además, ha solicitado hablar con las madres y padres, y aclarar el tema, porque las madres y padres creen que habrá dos escuelas infantiles.

**c.- Gazte Asanbladaren txosna**

Mikel zinegotziak galdetu du txosnaren ordutegia negoziatuko den.

Alkateak erantzun dio urtero festen aurretik ostalaritzarako ordutegi eta soinuen inguruko dekretua ebazten dela eta aurtengoa aurreko urtekoaren desberdina izango dela, eta beharrezkoa dela ordutegia aztertzea, dena den, oposizioaren konpromisoa eskatu du, beraiek izan baitira kokapena aukeratu dutenak.

**c.- Txozna de la Asamblea Juvenil**

El concejal Mikel pregunta si se va a negociar el horario de la txozna.

La alcaldesa le responde que todos los años se dicta un decreto en torno a ruidos y horarios de hostelería antes del inicio de las fiestas y que el de este año será diferente al del anterior, y que es preciso estudiar el horario, aunque solicita también el compromiso de la oposición, ya que han sido ellos quienes han elegido el emplazamiento.

**d.- Sagardo etxearen kokapena**

Andoni zinegotziak galdetu du kokapen prozesua nola dagoen eta datuak eskatu ditu.

**d.- Ubicación de la Sagardo etxea**

El concejal Andoni pregunta en qué punto se halla el proceso de ubicación y ha solicitado

Alkateak erantzun dio oraindik ez dituztela daturik, baina eduki bezain pronto bidaliko dizkiola.

datos al respecto.

La alcaldesa le responde que aún no disponen de datos, pero que se los remitirá tan pronto como los reciba.

**e.- Pilotalekuko harmailak margotzea**.

Andoni zinegotziak adierazi du adostuta zegoela harmailak ekainaren 28an margotzea herriko eragileekin batera, eta onartezina dela hori ez errespetatzea eta 10 minutu lehenago gonbidatu izana ekitaldira, are gehiago egun hartan berdintasun batzordea egon zenean.

Nerea zinegotziak erantzun dio prentsa oharra bidalita zegoela, baina akats baten ondorioz ez zela gonbidapena bidali zinegotzi eta udal langileei.

Andoni zinegotziak udal osoko akordioaren kontra joan izana leporatu die, eta adierazi akatsaz konturatzean ekitaldia bertan behera utzi behar zutela.

Nerea zinegotziak adierazi dio hori ezinezkoa zela, prentsan argitaratu zelako.

**e.- Pintado de las gradas del frontón**

El concejal Andoni señala que estaba acordado pintar las gradas el día 28 de junio con la colaboración de agentes de la localidad, y que es inaceptable que eso no se respete y que se les haya invitado al acto 10 minutos antes, más aún habiéndose celebrado la comisión de igualdad aquel mismo día.

La concejala Nerea le contesta que la nota de prensa ya está enviada, pero que la invitación no fue enviada a las y los concejales y las y los trabajadores del ayuntamiento a consecuencia de un error.

El concejal Andoni les reprocha haber actuado en contra del acuerdo del pleno, y manifiesta que una vez que se dieron cuenta del error tenían que haber suspendido el acto.

La concejala Nerea le indica que eso era imposible, ya que se publicó en prensa.

**f.- Trenaren proiektua**

Andoni zinegotziak adierazi du proiektuarekin kezkatuta daudela, eta obrak esleitu diren galdetu du.

Alkateak erantzun dio udal teknikariekin batera bilera eduki dutela, eta asmoa dela Urumea berrira iristea, baino gaia lantzeke dagoela.

**f.- Proyecto del tren**

El concejal Andoni indica que están preocupados con el proyecto, y pregunta si las obras se han adjudicado.

La alcaldesa le responde que ha mantenido una reunión con las y los técnicos municipales, y que su propósito es que el proyecto llegue hasta Urumea Berri, pero que el tema está pendiente de estudio.

**g.- Urumearen inguruko proiektua**

Andoni zinegotzia gaia nola dagoen galdetu

**g.- Proyecto en torno al Urumea**

El concejal Andoni pregunta en qué punto

du, eta Jon zinegotziak erantzun dio ez dagoela berririk.

está el tema, a lo que el concejal Jon le responde que no hay novedades.

**h.- Kamioi aparkalekua**

Andoni zinegotzia gaia nola dagoen galdetu du.

Alkateak erantzun dio gaia aztertzen daudela, baina dirudiela txikiagoa izango dela, alegia, orain dela bi legealdi aurreikusitakoa baino txikiagoa.

**h.- Aparcamiento de camiones**

El concejal Andoni pregunta en qué punto se encuentra el tema.

La alcaldesa le responde que lo están estudiándo, pero que parece que el aparcamiento será más pequeño, es decir, menor que el previsto hace dos legislaturas.

**i.- Soka dantza**

Andoni zinegotziak jaietan zinegotziak eskaintzen duten soka-dantza saiorako entseguak egingo diren.

Alkateak adierazi du egiteko asmoa zutela, eta galdetzekotan zeudela zenbatek behar zuten, eta nork eskatuko zuen bere ordez dantzari bat dantzatzea.

**i.- Soka-dantza**

El concejal Andoni pregunta si se van a realizar ensayos para la actuación de soka-dantza que ofrecen las y los concejalas durante las fiestas.

La alcaldesa manifiesta que tienen la intención de hacerlos, y que iban a preguntar cuántas concejalas y concejales los iban a precisar, y quién iba a solicitar que bailase una o un dantzari en su lugar.

Bilera amaitutzat eman dugu eta, eztabaidatu eta erabakitakoa jasota gera dadin, agiri hau egiten dut.

Astigarraga, 2018ko ekainaren 20an. .

Kontxi Urdampilleta Santamaría
Ordezko udal-idazkaria